

## **2015EKO ZEMENDIAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2015 zemendiaren 26an, arratsaldeko 7:00etan

### **BATZARKIDEAK:**

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

### **Zinegotziak:**

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BARTUREN jauna (EH Bildu)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- GORKA AZAOLA LÓPEZ DE GEREÑO jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI).

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehenakiritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

### **1.- 2015EKO URRIAREN 29AN EGINDAKO OHIKO AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2015eko urriaren 29ko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

## **2.- 2015EKO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2015eko zemendiaren 10eko aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietan akta hori aho batez onartu dabe.

## **2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.**

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

295/2015.- Euskal Herriko Surf Txapelketea antolatzeke baimena.

296/2015.- Egoitzazko SZR 1-1-ko 8. lursail pribatizagarria besterenganatzeko udal baimena.

297/2015.- Interesdun batek egindako erreklamazinoa baiestea.

298/2015.- Lorategi bat terraza bihurtzeko udal lizentzia.

299/2015.- Oktober Jaia ospatzeko eta horretarako beharrezkoa dan materiala erabiliteke baimena.

300/2015.- Leihoak aldatzeko udal lizentzia.

301/2015.- Ur hartune baterako obrak egiteke udal lizentzia.

302/2015.- Kultur Etxeko areto batean gimnasia egiteke udal baimena.

303/2015.- Arkitektura arloko lizitatzailleek aurkeztutako agirien balorazino txostena egiteke kontratu txikia adjudikatzea.

304/2015.- Erreklamazino bat artxibatzeke ebazpena.

305/2015.- Izoziak eta gozokiak saltzeko 1. espazio publikoaren esleipena luzatzea urtebete.

306/2015.- Izoziak eta gozokiak saltzeko 2. eta 3. espazio publikoaren esleipena luzatzea urtebete.

307/2015.- Eskaintza ekonomikorik abantailatsuena aurkeztu dauen lizitatzaillea *IGLU arkitekturak SLP* enpresek aurkeztutako proposamena izan dala erabagitea.

308/2015.- Balkoiak, leiho markoak eta balkoien sabaiak margotzeko, bernizatzeke eta barritzeke udal lizentzia.

- 309/2015.- Etxebizitza bat barritzeko udal lizentzia.
- 310/2015.- Suete eta bainugela bat barritzeko udal lizentzia.
- 311/2015.- “EIBEX Asesoría-Consultoría” enpreseari kontratu txikia adjudikatzea.
- 312/2015.- APS.” enpresak iminitako 2.200,00 €-ko behin betiko bermea itzultzea.
- 313/2015.- Hormak eta atea barritzeko udal lizentzia.
- 314/2015.- Bainugela bat barritzeko udal lizentzia.
- 315/2015.- Pertsona batzuei Udal Erroldan baja ematea.
- 316/2015.- Pertsona bateri Udal Erroldan baja ematea.
- 317/2015.- Pertsona batzuei Udal Erroldan baja ematea.
- 318/2015.- 115/2015 dekretuaren kontra eskatutako ofiziozko berrikuspena ez onartzea.
- 319/2015.- Epaitegiak, zemendiaren 10eko 148/2015 zk. epaiaren bidez aurkeztutako auzi-eskea ez onartzea eta horren barri ematea.
- 320/2015.- Alaitasuna Pelota Taldearen 25. urteurrena Txakolingunean ospatzeko materiala emateko udal baimena.

Udal idazkaria 319/2015 zk. dekretuaren barri emon dau era honetara:

*“Pertsona bat kalean jausi eta zauri fisikoak izan ebazan; haren argudioa izan zan jausi zala estali barik egoan udaleko arketa bategaz topo egin ebalako.*

*Hori dala eta, udalari kalte-ordaina eskatu eutson ezker, udalak arketa inguruko esparruaren egoeraren txostena egin eban, eta idatzi horretan ondorioztatzen da pertsona hori jausi izanak ez eukala zerikusirik udalaren zerbitzuaren funtzionamenduagaz.*

*Eskatzaileak txosten horregaz bat etorri ez zanez, epaitegira jo eban kalte-ordain eske, eta Epaitegiak, zemendiaren 10eko 148/2015 zk. epaiaren bidez, eskatzaileak aurkeztutako auzi-eskea ez onartzea erabagi dau”.*

**4.- AGIRRE LEHENDAKARIA PLAZAKO 3.EAN DAGOAN UDALAREN ERAKINAREN BEHEKO SOLAIRUKO LOKALAREN ERABILERAREN LAGAPENA LUZATZEKO ERABAGIA HARTU, BETI BE “CORREOS Y TELÉGRAFOS” ALKARTE PUBLIKOAK POSTA BULEGO MODURA**

## **ERABILTEKO. LUZAPENA 2016KO URTARRILAREN 1EAN INDARREAN SARTUKO LITZATEKE.**

Atoan, idazkariak berbea hartu eta espedientearen nondik norakoa azaldu dau, honako hau adierazoz:

“Posta bulegoa 2011 urteko amaierara arte lokal pribatu baten kokatuta egoan, udalak, ordura arte, lokalaren jaubeari hilero alokairu-prezio zehatz bat ordaintzen eutsan eta udalak prezio horren erdia berreskuratzen eban “Correos y Telegrafos, S.A.” Estaduko Alkartearen aldetik. Baina jaubeak lokala berarentzat behar ebala eta, urte horretako abenduaren 31rako lokala erabilteari itxi behar izan eutsan. Horregaitik, alkarre horregaz hartu-emonetan parau ginan eta esan euskun zerbitzuen murrizketa politekoa dala-eta ez eukala asmorik Bakion lokalen bat erosi edo alokatzeko posta bulegorako.

Hori ikusirik, Bakioko Udalbatzak, 2011.11.10ean, erabagi hau hatu eban: *Agirre Lehendakaria plazako 3.ean dagoan udal eraikinaren beheko solairuko lokala udalak posta bulego modura atondu eta Posta Sail horrerri lokalaren erabileraren lagapena egitea, jarduera horrek 2011ko abenduaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arteko iraupena izanik, urtebeteko luzapenak egiteko aukerak izango dirala kontuak harturik, beti be aurretiazko alde bien adostasunez.*

Beraz, lau urteko epe hori aurtengo abenduaren 31n amaitzen dan ezkerro, lokalaren erabileraren lagapena urtebeterako luzatzea proposatzen da, aste honetako astelehenean egindako Informazino Batzordean berba egin zan modura.

Azkenik, adierazo behar da “Correos y Telegrafos, S.A.” Estaduko Alkarteari, daborduko, asmo horren barri emon jakola. Ganera, Informazino Batzordean horretan Bakiobai taldeak eskatu eban modura, alkarre horrerri haxe adierazo jako, beti be lagapenaren luzapena baldintzatu barik: *udalak alokairu-prezioa eskuratzea bidezkoa ikusten dauala, eta, gure ustez, prezio egokia hileko 500 euro izatea dala (zenbateko hori zehazteko orduan, azalera eta herrian kokapen bardina daukiezan lokalen ganeko informazinoa kontuan hartu da)”*.

Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, haxe erabagi dau: **Agirre Lehendakaria plazako 3.ean dagoan udal eraikinaren beheko solairuko lokalean posta bulegoa dagoala-eta lokalaren erabileraren lagapena urtebeterako luzatzea, beti be “Correos y Telegrafos, S.A.” Estaduko Alkartearen alde, hau da, 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.**

## **5.- “JOSÉ ANTONIO OLABARRI CONSTRUCCIONES S.L.” ENPRESEAK ETA BAKIOKO UDALAK 2011KO MAIATZAREN 26AN SINATUTAKO HITZARMENA INDARGABETZEA ERABAGI.**

Gai horren espedientearen egoerari jagokonez, udal idazkariak azalpen honeek emon dauz:

*“José Antonio Olabarri Construcciones, S.L.” enpreseak eta Bakioko Udalak 2011ko maiatzaren 26an, hitzarmena sinatu eben helburu honegaz:*

*Hilabetegarrenean –2011.05.27tik kontetan hasita– Basigoko Bide Nagusia kaleko Igoan dagoan bere eraikina behera bota eta ingurua urbanizatu behar eban udalak erabili eian. Dana dala, horren jaubetza soila enpresa horren esku geratuko zan, harik eta ondorengo paragrafoan zehazten dana bete arte.*

*Udalak, horren trukez, enpresa horrerri eraikin horren lursailaren eraikigarritasuna (207,09 m<sup>2</sup>) arau subsidiarioen berrikuspenean zehazten zan jardunune batean emongo eutson (ganera, urbanizazino karga barik, eraikina behera bota eta lekua udalarentzat atontzeko orduan urbanizazino gastua eginda izango ebalako), berrikuspen hori behin betiko onartzeko lau urteko epea berbatuz (2015.05.27rako).*

*Arau subsidiarioen berrikuspena lau urteko epean behin betiko onartu ezik edota zazpi urteko epean enpresa horrerri jagokon eraikigarritasunaren kokapena jardunune zehatz batean zehaztu ezik udalak, hareri, 135.391,51 euroko kalte-ordaina ordainduko eutson (behera botatako eraikina egoan lursailaren aprobetxamenduaren ordainez), horrerri Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoaren prezioen indizearen portzentaia gehituz”.*

*Enpresa horrek ez deutso bere eginbeharrari jaramonik egin, hau da, ez dau eraikina behera bota eta urbanizazino obrak egin.*

*Udalari jagokonez, 2015ko maiatzaren 27rako ez da arau subsidiarioen berraztertze proiektua behin betiko onartu.*

*“José Antonio Olabarri Construcciones, S.L.” enpresearen Konkurtsoko Administratzaileak, entzunaldiaren barruan, eskutitza aurkeztu dau adierazoz udalagaz bat datorrela hitzarmena indargabetzeko orduan.*

*Beraz, hitzarmena indargabetzeko Udalbatzak erabagia hartu beharra dauka.*

**Horrenbestez, idazkariaren txostena eta espedientean jasoten diran agiriak kontuan hartuz, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: “José Antonio Olabarri Construcciones S.L.” enpresearen eta Bakioko Udalaren artean sinatutako 2011ko maiatzaren 26ko hitzarmena bertan behera ixtea.**

**6.- 2015. EKITALDIARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON, IRAILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKONEZ.**

2015eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko agiriak zinegotziek daukien ezkerro, horren barri emon da, beste barik.

## **7.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON, BETI BE 2015EKO HIRUGARREN HIRUHILABETEKOARI JAGOKONEZ.**

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontuhartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoera zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2015eko zemendiaren 20ko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta datuak honeexek dira, beti be bertan azaltzen danaren arabera:

<b><i>HIRUHILEKOAN EGINDAKO ORDAINKETAK</i></b>	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
<i>251.744,84 €</i>	<i>165 €</i>

  

<b><i>HIRUHILEKOAN ORDAINTZEKO DAUDENAK</i></b>	
<i>Ordaintzeko legezko epearen barruan</i>	<i>Ordaintzeko legezko epetik kanpo</i>
<i>123.872,31</i>	<i>41.814,59</i>

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan agiri da.

Udalbatza horren guztiorren jakinaren ganean geratu da.

## **8.- EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONETSI.**

Lehenengo eta behin, Ametz Jauregizar alkate andreak dino: onartu gura dan testua EUDELe udalbatzari bialdutakoa da, horri azken paragrafo bat erantsita. Eta, ostean, horren edukia irakurri dau:

### ***ADIERAZPEN: EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN EUSKALDUN BERRIARI AITORTZA***

*Hazkunde prozesua izan da EAEn euskara biziberritzearena, eta bi izan dira prozesu eredugarri horren zutabe nagusiak: hezkuntza eta helduen euskalduntzea. Azken hamarkada hauetan, milaka eta milaka izan dira heldutan euskara ikastea erabaki duten herritarrak, eta milaka, baita ere, euskararen aldeko hautua eginez, euskararik*

*jakin edo jakin ez, euren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren aukera egin dutenak.*

*2015eko Euskararen Egunean, euskarara hurbiltzeko hautua egin duten pertsonen aitormena egin nahi zaie, euskararen biziberritze prozesua etengabe elikatzen baitute pertsona horiek, eta haien guztien gogo, kemen eta ahalegina omendu nahi dira.*

*Horregatik guztiagatik:*

***Udal honek konpromisoa hartzen du heldutan euskara ikastea erabaki duten pertsona guztiari jendaurreko aitortza erakustea eta udalerriko kale, plaza, lorategi, iturri, areto edo guneren bati laster EUSKALDUN BERRIA izena jartzea.***

***Hainbeste pertsonen urteetan egindako ahaleginari esker ona eta jarraipena egiteko, aurrerantzean euskararen ezagutzaren unibertsaltasuna bermatu behar da eta horretarako doakotasunaren bidean aurrerapausoak ematea ezinbestekoa iruditzen zaigu.***

Segiduan, zinegotziek botoa emon dabe. Halanda ze, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aho batez, hauxe erabagi dau: **abenduairen 3an euskeraren nazioarteko eguna dala-eta transkribatutako adierazpen instituzionala onartzea.**

## **9.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Alain Gómez zinegotziak Bakiobai taldearen izenean eskatu dau udal batzarretan azaltzen diran agiriak jendaurrean ipintea.

Amets Jauregizar alkate andreak dino asmoa dala udalbatzaren bideoagaz batera audioa be publikatzea eta udalbatzetako agiriak.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:50ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria

## **EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURATIK KANPO.**

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 88.3 eta 228.2 artikuluetan oinarrituz, Amets Jauregizar alkatea andreak, udalbatzaren aretoan dagoan publikoari zuzenduz, adierazo dau ia inork ezer galdetu edo esateko dauka, eta inor be ez dau ezer adierazo.